3 HONDARTZETAKO KROSSA
XXXI
CROSS 3 PLAYAS

3 HONDARTZAK TXIKI – LABORAL KUTXA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Donostiako Jakintza Atletismo Kluba eta Bidasoa Atletiko Taldearen zuzendaritza teknikoak, **Donostiako 3 Hondartzak Txikiaren 2. edizioa** antolatu dute urriaren 10rako, goizeko 11:15etan. 10 kilometrotako lasterketa herrikoiaren ondoren . Ondarretako Hondartza inguruan emango dira irteera ezberdinak lasterketa luzeera ezberdinekin umeen adinen arabera.

Era honetako proba batean babesle nagusiaren**, LABORAL KUTXA**, inplikazioa eskertu nahi dugu.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 6 eta 12 adinen artean dauden haur orok parte hartu ahal izango dute. 2010 eta 2015 (biak barne) urteen artean jaiotako neska eta mutilentzat.

3. ARTIKULUA – IZEN EMATEAK

Izen-emateak irailaren 27an irekiko dira eta dohain izango dira lasterketa kupoa bete arte . Gehienez 195 haurrek parte hartuko dute. Honako modu honetan antolatuko ditugu haurren kopurua:

- Aurre-benjamin mistoa (2014-2015 jaiotakoak) – 65 haur gehienez
- Benjamín mistoa (2012-2013 jaiotakoak)---------- 65 haur gehienez
- Alebines mistoa (2010-2011 jaiotakoak) ---------- 65 haur gehienez

Izen-ematea on-line egingo da web honetan: www.rockthesport.com eta euro solidario bat gehitzeko aukera dago izen-ematean. Euro solidario bat gehitzeko aukera dago izen-ematean. Aurtengo edizioan **Aspanogi Fundazioari** bideratua dago, minbizia duten haurrei lagundu ahal izateko.

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Urriaren 6a, asteazkena, baino lehen (20h) eginiko izen-emate guztientzat korrikalariaren poltsa Robers kirol dendan (Larramendi kalea, 10) jaso ahal izango da ondorengo egun eta orduetan:

URRIAK 7, OSTEGUNA: 10.00 - 13.00 ETA 16.00 - 20.00
URRIAK 8, OSTIRALA: 10.00 - 13.00 ETA 16.00 - 20.00
URRIAK 9, LARUNBATA: 10.00 - 13.00 ETA 16.00 - 20.00

Azken orduko izen-emateetan eta aurrez jaso gabeko dortsalen kasuan, lasterketa egunean bertan jasoko dira irteera lekuan, Ondarretako hondartzan, goizeko 10.00etatik 11.15era bitartean.
Antolakuntzak gomendatzen du dortsalak aurreko egunetan jasotzea eta, lasterketaren egunean bertan jasotzekotan, hobe da denboraz egitea, bakoitzaren lasterketa hasi baino gutxienez 30' lehenago, ilarak saihestearren.

5. ARTIKULUA - LASTERKETEN DISTANTZIAK ETA ORDUTEGIA

Lasterketak ordu hauetan izango dira eta izen – emateen arabera aldatu litezke:

- 11h25 alebin mistoa 2010/11an jaiotakoak - 750 metro
- 11h35 benjamin mistoa 2012 jaiotakoak - 500 metro **(1go lasterketa)**
- 11h40 benjamin mistoa 2012 jaiotakoak - 500 metro **(2. lasterketa)**
- 11h45 benjamin mistoa 2013an jaiotakoak - 500 metro
- 11h50 aurre-benjamin mistoa 2014an jaiotakoak - 250 metro
- 11h55 aurre-benjamin mistoa 2014an jaiotakoak - 250 metro

6. ARTIKULUA - DEIALDIA ETA BEROKETA GUNEAK

Antolakuntza hobea izan dadin , haurrek, bakoitzari asignatu zaion beroketa zonaldera joan beharko dute bere lasterketa-ordua baino 15' lehenago. Zonak adinaren arabera banatuta egongo dira eta Jakintza eta Super Amara BAT elkarteetako begiraleak egongo dira haurrak irteerara eramaten.

Beroketa-eremura musukoarekin sartu beharko da, eta beroketa guztia musukoarekin egin beharko dute. Irteeran zaudela, kendu ahal izango da, eta lasterketa musukorik gabe egin. Helmugara iristean, musukoa berriro jarri beharko dute. Musukoa hautsi, galdu edo bota badute, beste bat emango zaie helmugan.

7. ARTIKULUA - SARIAK

Haur guztiek hamaiketakoa izango dute lasterketa bukatutakoan.

8. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, inskripzioa egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Elkarrekin Ibiliz Fundazioa (G-75170555) eta Bidasoa Atletiko Taldeak (G-20160859), bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, inskripzioa egin dutenenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Elarrekin Ibiliz Fundazioak (Zuatzo parke enpresariala, Urgull eraikina, 1. solairua, 3. Lokala) edo Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean (Ramon Iribarren kalea, 4 behea, atzealdea. 20304 Irun). Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.